

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Amurrioko SAPUR 1 urbanizatzeko egoitza lurzoru egokiaren sektoreko 1/2 komunitate ekipamenduko zuzkidura lurzatiaren plan bereziaren aldaketa puntuala. Behin betiko onarpena. Espedientea: 15143D108

Udalbatzaren 2016ko martxoaren 31ko erabakiaren bidez, behin betiko onartu zen "Amurrioko SAPUR 1 urbanizatzeko egoitza lurzoru egokiaren sektoreko 1/2 komunitate ekipamenduko zuzkidura lurzatiaren plan bereziaren aldaketa puntuala", Osakidetzak sustatua, zeinak aurreikusitako eraikinaren erabilerari (zuzkidura ostatuaren erabileraren orde osasun erabilera jarriko da) eta lehendik dagoen baserrian esku hartzeko baldintzei eragiten baitie.

Arabako Foru Aldundiko Hirigintza Planeamenduaren Administrazio Erregistroan gordailutu beharrekoa gordailutu eta gero, hala xedatzen baitu Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak bere 89.3 artikuluan, argitara ematen da ALHAOn, onartutako hirigintzari buruzko araudiarekin batera.

Plan bereziaren aldaketa espediente hori behin betiko onartzeari buruzko ebazpenak administrazio bidea amaitzen du eta haren aurka interesdunek administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete bi (2) hilabeteko epean, egintza jakinarazi zein argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan (Barroeta Aldamar kalea, 10- 2. solairua, Bilbo).

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Amurrio, 2016ko ekainaren 10a

Alkatea

JOSUNE IRABIEN MARIGORTA

SAPUR 1 SEKTOREKO 1/2 KOMUNITATE EKIPAMENDUKO LURZATIAREN PLAN BEREZIAREN ALDAKETARAKO EZARRITAKO ERAIKUNTZA BALDINTZAK, ERABILERA ETA JABARIARI DAGOKIENEZ

1/2 KOMUNITATE EKIPAMENDUKO LURZATIAREN ERAIKUNTZA BALDINTZAK (proposaturiko antolamendua)

Eraikinen formaren arauketa:

Lehendik dagoen baserrian esku hartzeari dagokionez:

Egingo diren obretan ez da beharrezkoa eraikin hori finkatzea, baina bai justifikatzea.

ERABILERA ETA JABARI BALDINTZAK:

Berezko erabilera: Osasun ekipamendua.

Jabari baldintzak: Jabari publikoa.